



Txillardegí Gogoan elkarteak omenaldia egin nahi dio idazleari erakusketaren eta emanaldiaren bidez. JON URBE / ARP

‘Txillardegí modernitatearen isla’ erakusketa antolatu du Zarautzen Txillardegí Gogoan elkarteak. Idazlearen izaera «polimata» goratu, eta haren obra ahanzturan eror ez dadin lanean dihardu taldeak.

Txillardegí, bere garaiko eraldaketaren isla

Aldaketaren isla izan da Txillardegí. Aldaketa euskal literaturari dagokionez, aldaketa euskara batuaren aldeko urratsak egiterakoan, eta baita euskal politikan ere. «Txillardegí ondo jaso zuen bere garaiko errealtatearen isla», azaldu du Fito Rodríguez Txillardegí Gogoan elkarteko kideak (Gasteiz, 1955). Euskal gizarte modernitate bidean egiten ari zen aldaketan lekuko izan zen idazlea, eta eraldaketa horiek islatu zituen saiakera politikoen eta testu literarioen bidez. Asteburuan omenaldia egin nahi diote Txillardegíri, Zarautzen: Txillardegí modernitatearen isla erakusketa ikusgai izango da Modelo aretoan.

Aretoko sarreran Txillardegíren idazlanen inguruko panelak ipiniko dituzte. Besteak beste, haren nobela ezagunen azalen irudiak ikusi ahal izango dira: tartean, *Leturiaren egunkari ezkutuaren* eta *Elsa Scheelen*-ena. Garaio liburu dendan, berriz, Txillardegíren objektu pertsonalak

eta jatorrizko eskuidatziak egongo dira ikusgai. Euskal Herriko historiaren pasarte garrantzitsuak biltzen ditu erakusketak, Rodríguez ustez: «Testu balioetsuak eskuratu ditugu. Besteak beste, ETaren lehenengo gutuna, euskara batuaren lehenengo aldarrikapena eta *Euskal Herria helburu* liburuaren eskuizkribuak». Gainera, idazlearen arlo pertsonaleko bestelako objek-



Pertsona batzuk giltzarri dira uneko testuingurua ulertu eta mundu ikuskera aldarazteko. Horietako bat zen Txillardegí.

Fito Rodríguez
Txillardegí Gogoan elkarteko kidea

tuak ere jaso dituzte erakusketan. euskararekin, literaturarekin eta politikarekin harremana duten beste elementuekin batera.

Erakusketaz gain, *Elsa Scheelen* nobelaren irakurketa dramatizaturia ere egingo du Txillardegí

Gogoan elkarteak larunbatean, Modelo aretoan. «Duela hiru urte, Euskal Herriko zenbait aktore, idazle eta musikari bildu ginen emanaldia prestatzeko, eta Donostiako Miramar jauregian aurkeztu genuen EHUren Udako Ikastaroetan», gogoratu du Rodríguez. Aurten, idazlearen heriotzaren bosgarren urteurrenean, berriz heldu diote proiektuari.

Hain zuzen ere, Txillardegí XX. mende erdialdeko testuingurua nola jaso eta jorratu zuen azaltzeko, adibide jarri du Rodríguezek *Elsa Scheelen* nobela: «Oso protagonista aurrerakoia da Elsa; emakumea eta polemikoa». Nobelaren gaia bera ere «modernoa» da: drogak, dibortzioa, suizidioa... nahasten dira istorioan. Liburuaz haratago, ordea, Txillardegí euskal literaturara idazteko modu berria bat ekarri zuela uste du Rodríguezek: «Literaturan beharrezkoak dira bi ispilu. Literatura klasikoa, gizarte-

gertatzen dena islatzen dute idazleek. Modernoan, berriz, barne ispiluak ageri dira. Txillardegí, bi ispiluekin jolastan jakin zuen».

Gainera, haren lanetan Euskal Herriko testuingurua islatzen asmatu zuela dio Rodríguezek. Eta areago, bere garaiko Euskal Herriari «ekarpena» ere egin ziola oroitarazi du: «Euskal Herria lurralde gisa aldarrikatu zuen, ETaren sortzaileetako bat izan zen, baita euskara batuaren sustatzaile nagusietako bat ere». Txillardegí «polimata» izan zen, haren ustez: «Gizarte eta testuingurua aldatu egiten da, eta pertsona batzuk giltzarri izaten dira uneko aldaketen jabe egiteko eta mundu ikuskera aldarazteko. Horietako bat izan zen Txillardegí».

Modernitateari jauzi eginda, idazle donostiarrak existentzialismoaren ildotik egin zuen bidea. Bere garaiko «euskal literatoek» jarritako oztopo ugari gainditu behar izan zituen, ordea: «*Leturiaren egunkari ezkutu* idatzi ostean, kritika gogorak jaso zituen, eta zortzi urtez egon zen ezker argitaratu gabe», azaldu du Rodríguezek.

Ahanzturan eror ez dadin

XX. mende erdialdean aitortpenik jaso ez zuen bezala, Txillardegíren heriotzaren ostean ere, errekonozimendurik eduki ez duela iritzi dio Rodríguezek. Gogoan du idazlea hil eta berehala hainbat idazleek eskakizuna egin ziotela Donostiako Udalarri Udal Liburutegiak haren izena har zezan. Bost urteren ostean, udalak ez du aldarrikarik egin, eta kalerik ere ez dago haren izenean. Horregatik, Txillardegí Gogoan taldeak salatu du Donostiako Udala «boikota» egiten ari dela, eta adierazi du beharrezkoa dela idazlearen izena hiriko «paisaia linguistikoa» parte izatea; «hala merezi duela».

Instituzioek urratsik egiten ez dutela ikusita, taldekideek berriekin diote Txillardegíren ondarea zabalteari. Horregatik, azaldu dute asteburuan Zarautzen egingo duten ekitaldia ez dela aitzakia hutsa: «Ez zaio egin, inoiz eta inon, mehezitako omenaldia». Egitasmo berri honen bitartez, taldekideak prest daude Literaturariaren harira antolatu dutena herriz herri zabaltzeko. «Ez dugu egin nahi museo batean gordetzeko eta lau literaturazalek ikusteko zer bait. Euskal kultura maite dutenek Txillardegíren ondarea jaso dezaten nahi dugu», esan du Rodríguezek. Omenaldirik onena haren lana eta eraldaketarako gaitasuna ez ahaztea dela dio.

Gaur hasi eta igandera bitarte ekitaldi ugari antolatu ditu Literaturariak. Emanaldiak Zarautzo Modelo aretoan izango dira, eta liburu aurkezpenak, Garaio liburu dendan. Asteburu osoan, gainera, liburu azoka egongo da Musika plazan, eta Txillardegíren omenezko erakusketa Modelo aretoko sarreran.

Osteguna 25

20:00: *Skizopozik errezitaldi hitzperimantala* Markos Gímeo Vegarekin. Umorezko ikuskizun atsegin eta berrizalea. Euskalduna tabernan.

Ostirala 26

19:30: Irekiera ekitaldia. *Zergatik bi?* Manifestua irakurriko dute Bea Salaberrik eta Katixa Dolharek.

20:00: *Nigan, ispilu batean bezala*. Ispilua ardatz hartuta, errezital musikatu egingo dute Irati Jimenezek eta Pettik.

Larunbata 27

11:30: *Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakumea naiz*. Bihotz Bakartien Klubaren errezital musikatu. Amaia Lasaren poema bat aitzakia hartuta, XX. eta XXI. mendeko emakume idazleen ahotsak eramango dituzte oholtzara.

13:00: EIZIEn emanaldia: itzulpen tailerreko bideoak. Parte hartzeko ez da beharrezkoa itzulzailea izatea, ezta azpidatziak egiten jakitea ere.

17:30: *Hozkailua*. Arte Dramaren lan berria.

20:00: *Aginako zero bat*. Joxe Azurmendik idatzitako *Manifestu Atzeratua* testuan oinarritutako emanaldia. Manex Agireren eta Gaizka Amondarriaren hitzak eta ahotsa. Jon Aranbururen eta Marco Bianchiren musika.

11:30: *Pete Seeger gogoan*. Lou Topeten emankizuna.

Igandea 28

12:00: *Literatura, ispilu ala leiho?* Iban Zaldúa eta Miren Gorrotxategiren arteko solasaldia, Mikel Aierbek gidatuta.

13:15: *Beti bezperako koplak* film laburraren proiektzioa. Ageda Kopla Taldearen lana.

17:00: *Elsa Scheelen*. Txillardegíren obraren irakurketa dramatizaturia.

19:00: *Sakaponetara, memoriaren ispiluekin*. Lorea Agirre, Ainhoa Alberdi, Anari Alberdi, Olatz Albisu, Iñigo Aranbarri, Iraia Elias, Imanol Epelde, Amagoia Gurrutxaga, Mirari Irurtzun, Josu Landa, Ainaro Lasa eta Jose Luis Otamendi.